HAUR ETA GAZTE LITERATURA

# Lamia salbatu zuenekoa

**URREZKO ORRAZIA**
Gaizka AROSTEGI.
Irudiak: Eider Eibar
Elkar, 2012.

Xabier ETXANIZ ERLE

«Baserria lehenengo aldiz ikustean, zirrara bitxi bat nabaritu zuen Ainhoak, bihotz barrenean. Bai, inolako zalantzarik gabe, kutsu misteriotsua zerion». Esaldi horrekin abiatzen da Gaizka Arostegiren abenturazko nobela hau, misterio, abentura, mitologia eta gaur egungo errealitatea konbinatzen dituen lana.

Nobelako protagonista, Ainhoa, arbasoen baserrira joan da gurasoekin egun batzuk pasatzera. Egun lasaiak eta familia barneko egoera konpontzeko edo balio behar zutenak; gertakariek, baina, guztia korapilatuko dute. Ainhoa abentura ikaragarrian sartuko da, lamiak eta mitologiako bestelako pertsonaiekin batera. Gurasoek, beste aldetik, beren harremanaren amaiera nabaritzen dute, behinolako maitasun garra itzali edo itzaltzen ari dela.

Elementu horien konbinaketarekin, batez ere Ainhoaren nondik norakoekin, osatu du Gaizka Arostegik liburu hau, III. Mikel Zarate literatura saria irabazi zuen lana, hain zuzen; eta aurretik aipatu ditugun gai horiez gain idazleak kontakizunean ezarritako bizitasuna gehitu behar dugu; lana 31 atal laburretan banaturik baitago eta horrek, bai eta euskara aldetik zailtasun handirik ez izateak eta zenbaitetan elkarrizketa ugari egoteak, lagundu egiten dute irakurketa bizia izaten, ia-ia abenturen trama bezain bizia.

Ainhoak Ur lamia lagundu nahi du, eta horretarako, basoko pertsonaia mitologikoak kontrolatzen dituen atso gaiztoaren kontra ere egin beharko du neskatilak adorea eta argitasuna erabiliz. Ipotxak, bizargorri, herensuge, sorginak... azalduko zaizkigu abentura horretan, batzuen laguntza izango du Ainhoak, beste batzuk etsai; baina batzuen alde eta besteen kontra ari delarik irakurlea liburuko orriak irenstera darama; abenturak bizitzera, liburuaz disfrutatzera.




## «Hitzak hegan» poesia jardunaldiak asteartean hasiko dira

GARA | **DONOSTIA**

Irungo Kabigorri Ateneoak eta Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak antolatzen duten “Hitzak hegan” poesia jardunaldiak asteartean hasiko dira, Asier Serranoren “Hoteleko kantu eta kontuak” ikuskizunarekin, Donostian, 19.30ean. Asteazkenean, Mariluz Secillaren txanda izango da, “Nefoé. Mujer: mala hierba”-rekin eta ostegunean Francisco Javier Irazokik “La poesía de Irazoki” aurkeztuko du. Ekitaldiak igandera bitartean luzatuko dira bai Irunen eta baita Donostian ere. Ostiralean, esaterako, Castillo Suarez izango da Koldo Mitxelenan.

ALDIZKARIAK




TMEO

**«No a los re-cortes»**
Número 120.

La revista de historietas bimensual que edita Ezten kultur taldea de Gasteiz lleva a su portada, como no podía ser de otra manera, los recortes. «Ya vale de recortarlo todo... Que tomen ejemplo del TMEO, que no recortamos ‘na’. Ni nos cortamos. Aunque siempre disparamos humor y mala hostia con recortada. No dejamos títere con cabeza. ¡Pum! ¡A la cabeza!», advierten.

En este número «el descojono se desparrama por todos los lados como el queso de las güenas pizzas», añaden. «Como dijo en su día Bertín Osborne del TMEO: ‘Si llega el caso de que me exilien a una isla desierta, nada de llevar fulanas, me llevaría toda mi cole de TMEOs’». A pesar de los recortes, animan a hacerse con un ejemplar, porque «la cuesta de enero no es nada con un TMEO al lado. O sí le es: pero se hace cuesta abajo, a toda velocidad y sin frenos».



ARIADNA HISTÓRICA

**Con el análisis de David Armitage**
Número 1.

¿Qué esconde el concepto de Guerra Civil? ¿Cuáles son las relaciones entre República y Democracia? ¿De qué realidad hablamos cuando decimos Iglesia? Estas son algunas de las cuestiones que se plantean en el primer número de “Ariadna Histórica”, la primera publicación sobre historia conceptual que se edita en castellano. “Ariadna Histórica” abre las páginas de su número uno con un estudio sobre el concepto de guerra civil desde el primer siglo antes de Cristo hasta la actualidad, escrito por el director del Departamento de Historia de la Universidad de Harvard, el prestigioso historiador David Armitage. La revista, de carácter digital y dirigida por el catedrático de la UPV/EHU Javier Fernández Sebastián está dedicada a la historia de los lenguajes, conceptos y metáforas sociales y políticas. Además incorpora el monográfico titulado “Marcos conceptuales de las independencias: interacciones discursivas entre conceptos clave”.

